



ERBI EUROPARRA

Lepus europaeus

TAMAINA


45-70 zm

ITXURA

Europako erbia untxia baino handiagoa eta luzeagoa da. Ile gris marroia du bizkarrean, eta gorria sorbaldetan, hanketan eta lepoan.

Sabelaldea xurixka da eta buztan eta belarrien muturrak beltzak dira.

NOLA IDENTIFIKATU?



NOIZ?

- > Urte osoan zehar
- > Hobe gaez

NON?

- > Sasi batzuk dituzten ingurune irekietan
- > Oihan bazterretan



Untxiarekin nahas daiteke.

AURKEZPENA

BIZI ESPERANTZA

10 urte

ESPEZIEAREN EKOLOGIA

Landare basatiak jaten ditu batez ere. Bere bizi-eremua (300 ha inguru) bertze erbiekin partekatzen du, eta hierarkia bat sortu daiteke. Otsaila eta iraila bitartean ugaltzen da. Emeak urtero 2-4 umeko 3-5 umealdi egiten ditu. Europako erbia abiadura handiko lasterketarako (80 km/h-raino) eta jauzi-potentzia handirako (2 metroko altuera eta 3 metroko luzera) egokitua da.

BEHARRAK, MEHATXUAK ETA ERRONKAK

1980ko hamarkadatik landa Europako erbien populazioa nabarmen jaitsi bada ere, oraindik arrunta da lurraldean.

Ehiza intentsiboa, eritasun kutsudunak, habitat naturalaren zatiketa (hesien desagertzea) eta errepide-talkak dira erbi populazioen gainbeheraren arrazoi nagusiak.

Laborantzaren intentsifikazioa (ongarriak gehiago aplikatzea dakarrena), paisaiaren homogeneotasuna eta mekanizazioa direla kausa, Europako erbien populazioen murriztea azkartuz doa.

Honi aurre egin daiteke paisaiaren heterogeneotasuna indartuko lukeen habitatak lehengoratzuz edo erbi laxatzeak eginez.